



## **HAUTESKUNDE SINDIKALAK EAEKO HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKOAN- unibertsitatez kanpokoan eta EHU<sup>n</sup> – eta GIPUZKOAKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOA**

### **steilas UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAN SINDIKATU BOZKATUENA IZAN DA**

Atzo, martxoak 11, hezkuntza publikoko milaka langilek- unibertsitatez kanpokoek eta EHUkoek – eta Gipuzkoako Haurreskolak Partzuergoek beraien bozka eman eta ordezkariak sindikala hautatzeko aukera izan zuten. Hona hemen datu batzuk:

**Unibertsitate publikoan** (EHU-UPV) 7.357 hauteslek 92 delegatu aukeratu zituzten lau kolektibotan:

- AZP funtzionarioak: 23 delegatu
- AZP laboralak: 17 delegatu
- Irakasle laboralak: 27 delegatu
- Irakasle funtzionarioak: 25 delegatu

**Unibertsitatez kanpoko sare publikoari** dagokionez, 26.176 langilek 4 kolektibotako 206 delegatu aukeratu zituzten:

- Irakasle funtzionarioak: 105 delegatu (2011an baino 6 gehiago)
- Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileak: 147 delegatu.
- Zerbitzuetako langileak: 39 delegatu.
- Erlijioko irakasleak: 15 delegatu.

Azkenik, **Gipuzkoako Haurreskolak Partzuergo**ko 17 delegatu aukeratu ziren (590 hezitzaile).

Zerbitzuetako langileak eta Erlijioko irakasleak esparruan izan ezik . Datu hau garrantzitsua da oso, horiek baitira ordezkari proportziorik handiena duten esparruak – boto gutxiago behar dira ordezkari bat lortzeko-

#### **Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza:**

##### **•Irakasle funtzionarioak**

%40,9ko parte hartze izan da. **steilas**-ek berretsi du duela 4 urte lortutako gehiengoa. 3.257 bozka Portu ditu - %32,5 2011n baino 4 puntu gehiago-. Gehiengo hau nabariagoa da Araban ( % 41,7 ), eta Gipuzkoan zein Bizkaian

% 30etik gorakoa.

**steilas**-ek 37 ordezkari lortu ditu, 2011n baino 7 gehiago. Araban 12 – duela 4 urte baino 3 gehiago -, Bizkaian 13 – 2 gehiago- eta Gipuzkoan 12 – 2 gehiago-.

Bigarren sindikatuarekiko aldea 7 puntu baino gehiagokoa da – 9 ordezkari-koa-

### ***Lan-legepeko hezitzaile eta irakasleak***

% 56ko parte hartze izan da. **steilas**- ek duela 4 urte lortutako bozka % mantendu du eta 7 ordezkari lortu. Kontuan izan behar da Gipuzkoako hauteskundeak, administrazioaren akatsak medio, datorren martxoaren 25ean izango direla.

Hau guzti aintzat hartuz, EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan **steilas** bozka gehien lortu duen sindikatua da ( % 29,69. Gehiengo honek ez dauka isla ordezkari kopuruan, indarrean dagoen ordezkari sistema bidegabekoagatik. Ordezkari kopuruari dagokionez **steilas**- 2. indarra da eta 46 ordezkari lortu ditu ( duela 4 urte baino 6 gehiago).

### ***EHU-UPV***

**steilas** boto kopuru gehiena lortu duen sindikatua da ( % 22,9 eta bigarrena ordezkari kopuruari dagokionez (21). Duela 4 urteko emaitzekin alderatuz , botoetan %3 gehiago lortu dugu eta 2 ordezkari gehiago; 3. sindikatuarekiko aldea handituz.

Lan-legepeko funtzionarioen esparruan lehengo indarra izan gara – 7 ordezkari. Beste guztietan bigarren indarra izan gara .

### ***Gipuzkoako Haurreskolak Partzuergoa***

**steilas** en ordezkari maila 5 puntu igo da . eta boto kopuruan gehien igo dena izan da. Sektoreko bigarren sindikatua gara, eta datorren urtean Araban eta Bizkaian izango diren hauteskundeak zain.

### **BALORAZIOA.**

**steilas** sindikatua oso pozik dago Atzo egindako hauteskunde sindikalen emaitzekin. EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko langileen babes handiena jaso duen sindikatua garelako azpimarratu nahi dugu. Horregatik, **steilas**-gan konfiantza jarri duten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Kezkatzen gaitu parte hartzeak behera egin izanak eta horrek gure sindikalgintzaren inguruko hausnarketa egitera eramaten gaitu, langileek duten arazoetatik hurbilgoko sindikalgintza lortze aldera.

Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hauteskunde prozesua hasieratik oztopoz bete izana salatu nahi dugu. Ikuskatzaileen eta ahaldunen ordezkariak ez ditu bete. Hau dela eta, pertsona hauek izendatzerakoan bi baldintza hauek kontuan hartzea behartuta egon gara; lankideen lan zama ez handitzea eta eskoletako funtzionamendua ez oztopatzea. Horregatik lagundu

gaituztenak berritzeguneko langileak, zuzendari taldekoak edo jubilatutak izan dira.

Hezkuntza Sailari beraien politika murriztaileak eta langileen ordezkariak babesa ez duten proiektuak ( HEZIBERRI) inposatzeari uztea eskatzen diogu . Sindikatuekin Langileen lan eta sari baldintzak eta hezkuntza sistemarako dituzten egitasmoen elkarrizketa egonkorak mantentzea exijitzen diogu.

**steilas**-ek hezkuntza sistema publikoaren alde lanean eta borrokan jarraituko du. Hezkuntza sistema publikoa, euskaldun, plural, laiko eta doakoa, aniztasuna integratuko duena eta kohezitzailea, eta eskatzen diren plaza guztiak – 0 urtetik unibertsitatera- bermatuko duena ( Euskal Herriko eskubide sozialen karta)

Bilbon 2015eko martxoaren 12an